

# LEGE-OHARRA

## Lege-informazioa

Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 Europako Erregelamenduak eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoak agintzen dutenari jarraikiz tratatuko ditu zure datuak Jotamas Eventos SLk.

## Webgunera sartzeko eta hura erabiltzeko baldintzak

### Nor gara

Jotamas Eventos SLk antolatutako ekitaldi bat da WORKinLan.

Hona Jotamas Eventos SLren egoitza soziala: Diputazio kalea, 4 bis, 7.a A Bilbo (Bizkaia). Biltzarrari buruz informazio gehiago nahi izanez gero, jarri gurekin harremanetan 94 424 20 23 telefono-zenbakira deituz edo helbide elektronikoa honetara idatziz: [info@workinlan.eus](mailto:info@workinlan.eus).

### 1. Webgunera sartzeko eta hura erabiltzeko betekizun eta baldintza orokorrak

Jarraian deskribatzen diren erabilera-baldintzen arabera eskaintzen du Jotamas Eventos SLk [www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus) webgunerako sarbidea:

### Sarbidea eta erabiltzaileak

[www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus) webgunera sartzeko erabiltzaile-izaera ematen dio hori egiten duenari (aurrerantzean, «Erabiltzailea»), eta berekin dakar Erabiltzaileak erabilera-baldintza hauek guztiak eta haietako bakoitza onartzea, hargatik eragotzi gabe aplikatu beharreko baldintza partikularrak.

### Aldaketak

Webgunearen prestazioak hobetearren, haren aurkezpena, konfigurazioa, edukiak eta zerbitzuak aldi baterako noiznahi aldatu, zabaldu edo bertan behera uzteko eskubidea du Jotamas Eventos SLk, alde bakarretik eta erabiltzaileari aurretik jakinarazi gabe. Eskubidea du, halaber, noiznahi aldatzeko erabilera-baldintza hauek eta [www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus) webgunearen beste baldintza partikular batzuk.

### Edukia

Jotamas Eventos SLk bermatzen du printzipio hauek betetzen dituztela [www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus)-en eskaintzen diren eduki guztiek: pertsonaren duintasun-printzipioa; inor ez diskriminatzeko printzipioa arraza, sexual, erlijioa, iritzia,

nazionalitatea, desgaitasuna edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial dela medio, eta gazteak eta haurrak babesteko printzipioa.

### **Erabilera-baldintzak**

Erabiltzaileak hitzematzen du egokiro erabiliko dituela [www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus)-en edukiak, ez direla inoiz erabiliko legez kontrako jardueretarako edo ordena publikoaren, defentsa nazionalaren edo osasun publikoaren aurkakoetarako. Aurreko paragrafoan jasotako printzipioak aintzat hartuta baliatu behar ditu erabiltzaileak webgunearen edukiak.

Berariazko baimena du erabiltzaileak [www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus)-eko informazio guztia ikusteko eta bere sistema informatikoetan haren erreproduzio pribatuak egiteko, betiere eduki horiek berak bakarrik erabili behar baditu eta ez badizkie gero hirugarren batzuei lagatzen.

### **Jabetza intelektual eta industrial**

Jotamas Eventos SL da hauen jabea: [www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus) webguneko jabetza intelektual eta industrialaren eskubideena, haren diseinu grafikoena eta kode informatikoena, eta deitura komertzial, marka eta zeinu bereizgarriena, beste titular batenak direla adierazten ez bada webgunean.

Legeak babestutako jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak urratzen ditu edukien erreproduzio, banaketa, komertzializazio eta eraldaketa orok, baldin eta webgunearen titularrek baimendu ez badute.

Dagozkion egintza administratibo, zibil zein penal guztiak balia ditzake Jotamas Eventos SLk erabiltzaileak eskubide horiek urratzen baditu.

### **Bermeak eta erantzukizunak kanpoan uztea**

Erabiltzailea da [www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus) webgunera sartzearen eta hura erabiltzearen erantzule bakarra.

Jotamas Eventos SLk ez du bere gain hartzen bereak ez dituen eta hirugarren batzuen informazio-iturrietatik jasoak diren informazioen zehaztasunari, egiazkotasunari eta gaurkotasunari buruzko erantzukizunik. Jotamas Eventos SLk zerbitzu eta eduki hauen erantzukizuna bakarrik bereganatuko du: berak sortutakoena eta bere Copyright bidez Jotamas Eventos SLren marka edo jabetza intelektual edo industrial gisa identifikatutakoena.

Jotamas Eventos SLk ez du bere gain hartzen arazo hauek direla eta sor daitekeen inolako kalte-galeraren gaineko erantzukizunik:

1. [www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus) webgunearen funtzionamenduaren jarraitutasunik eza eta funtzionamendu desegokia.
2. [www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus)-en eskaintzen diren zerbitzu eta edukien erabilgarritasunik, egokitasunik edo baliorik eza, erabiltzailearen emaitza eta itxaropenekiko.
3. Birusak edo programak egotea erabiltzailearen ordenagailuan [www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus) <<http://www.workinlan.eus>>-en bidez hirugarren batzuek emandako zerbitzuetan.
4. Baimendu gabeko hirugarren batzuek jakitea webgunera sartzeko eta hura zein han dagoen informazioa baliatzeko erabiltzaileen ezaugarri, baldintza, mota eta inguruabarren berri.
5. Inolako kalterik, barne direla utzikeria, negozio-galera, erabilera-galera, irabazi-galera, datu-galera, zeharkako kalteak, bigarren mailakoak, bereziak edo webgunera sartzeagatik edo haren zerbitzuak —edo bestelako arrazoiengatik haren eremuan daudenak— erabiltzeagatik gertatzen direnak.

## **Cookieen erabilera**

Cookie propioak eta hirugarren batzuenak erabiltzen ditu [www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus)-ek webgune horretako nabigazioa erraztearren eta erabiltzaileei eduki eraginkorragoak eta pertsonalizatuagoak eskaintzearren. Haien erabileraz informazio gehiago izateko, jo [www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus)-en cookie-politikaren atalera.

## **Euskarako eta ingeleseko itzulpenak**

Informazio gisa ematen da —bakar-bakarrik— webgune honetako informazio eta eduki guztiaren euskarazko eta ingelesezko bertsioa. Ez baldin badatoz bat euskarazko edo ingelesezko bertsioa eta jatorrizkoa (gaztelaniazkoa), azkena aipatu dugun hori lehenetsi behar da.

## **Jurisdikzioa eta aplikagarri den legedia**

Espainiako legediak xedatutakoaren arabera aplikatu behar dira erabilera-baldintza hauek.

Desadostasunik edo ez bairik sortuz gero erabilera-baldintza hauen interpretazioa zein aplikazioa edo webgunearen edukia dela eta, Jotamas Eventos SLk eta erabiltzaileak berriaz egingo diote uko —oro har— legokiekeen beste edozein foruri, eta erabiltzailearen helbideari dagozkion epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dira. Erabiltzailearen helbidea Espainiatik kanpo baldin badago, Bizkaiko Bilbo hiriko auzitegi eta epaitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira Jotamas Eventos SL eta erabiltzailea, berriaz uko eginda legokiekeen beste edozein foruri.

### **1. Datu pertsonalen segurtasuna eta babesa.**

## **Segurtasun-neurriak**

## **Datu pertsonalen babesa**

[www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus)-ek ez du jasotzen inolako datu pertsonalik; biltzarrerako izena [www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus)-en eman behar da.

## **Estekak**

[www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus) webguneak estekak eskaintzen ditu hirugarren batzuen jabetzako beste webgune edo eduki batzuetarako. Hau da esteken xede bakarra: haien bidez informazioa osatzeko aukera eskaintzea erabiltzaileari. Jotamas Eventos SLk ez du bere gain hartzen inolako erantzukizunik erabiltzaileak esteka horietara sartzeak eragin ditzakeen ondorioak direla eta.

Jotamas Eventos SLren aldez aurreko baimen idatzizkoa bereganatu behar du bere webgunetik [www.workinlan.eus](http://www.workinlan.eus) webgunerako estekagailu teknikoren bat bidali nahi duen erabiltzaileak, eta —oro har— pertsona fisiko zein juridiko orok. Esteka ezartzeak ez dakar berekin elkarrekin harremanik izatea Jotamas Eventos SLk eta esteka ezartzen den webgunearen jabeak, ez eta Jotamas Eventos SLk haren edukiak edo zerbitzuak onartzea eta baimentzea ere.

2022 Jotamas Eventos SL Eskubide guztiak, babestuta.